

1994ko apirilak 29

233. zenb.

PRESS

ARRASATE



Kultura
Arrasateko
gaztelua

Hirugarren
munduaz

Eskuzabal ala
zordun?


ARRASATEKO BATXILERGO INSTITUTUA

Irakaskuntza publikoa eta euskalduna


GURE ESKOLA



Aurreinskripzio
epea:
Maiatzaren
4tik 18ra



**ZATOZ
GURERA!**



IKASKETA ESKAINTZA

- ★ REM Lehen Zikloa
- ★ Batxilergoa
- ★ UBI

**MATRIKULA
DOHAINIK!**

Langabezian eta zer gehiago?

Arrasateko (ez bakarrik) jende asko txo langabezian dago, gehienbat gazteak. Batzuk ikasketa askorekin eta beste batzuk gutxiarekin, INEMera joaten dira sarri euren txartelekina eta berdindin bueltatzen dira bertatik. Denbora asko daramate horrela (askok urteak) eta jadanik ez dakite zer egin. Lanbide eskolan eta beste leku batzuetan ikastaroak egin izan dituzte (sartzeko borrokatu behar izanda batzutan) eta hala ere, askotan ez da euren preparazioa kontutan edukitzen. Egun guztiak dira berdinak. Edo egun dena kalean, edo egun dena etxean eta bietan gaizki. Etxean geratu izan ezker, telebista da protagonista. Informazioa eta abar barra-barra (beste gauza batzuen artean) zure jakin-mina asetzeko eta gertatzen denaren (baina bakarrik eurek nahi dutena sartzeko eta beste zentsuratu. Adibidez euskal telebistan erantzaintzaren eta ejerzitoaren aurkako bertsoak botatzen hasi zirenean bezala) berri izan dezazun.


Horietako askok ezin dezakete, beraz, ikasketak edo alegatu eta

soldaduska daukate zain hurrengoko eskinan. Joateko irrikitan, —ez horixe— ez dardenez, askotan paretaren kontra egongo dira; alde batetik, epaiketak eta horiekin kartzela zigorrak, beste aldetik lan gehienek eskuratu ahal izateko “soldaduska egin beharreko” esigentzia eta honek dakarren etxekoan (guraso...) presioa (zuregan). Besarkada bat epaitu eta epaituko dituztenei, eta nola ez, orokorki, euren ideiak (positibo, ez destruktiboak) lehenengo jartzen dituztenei beste gauzen aurka.

Arazo horiek ahaztu nahi bazenitu bezala (nahi bai, baina ezin) bazoaz norabait, taberna zulo eta “kaos urbanotik” kanpo, aire garbi eta lasaira, piskat etzatera edo ezta? Ba, ez; adibidez, txikitatik ibili izan garen mendixka horretan, Santa Barbaran, alegia, ez dizute belarretan etzaten uzten, ezta belar gainean ibiltzen ere. Aldi berean, Epeletik laster joango den bidearena, Maltzaga-Urbinarena, ez dakigu zertan bukatuko den eta zenbat belar eta zuhaitz gertuko zaizkigun ba al daki “inork”?

Puteatuenak eta mordo bat egoera berean, ezin bakoitza bere aldetik jarraitu ostia txar guzti hori mordo honen onerako izan dadin, bideratu behar. Bideratu eta zuk zeuk ez utzi gal dadin, inguruko modelu honen errefleju barruan. Espiluak zertarako?

IKER BARANDIARAN



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketaria:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Lihor Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Amaia Marliartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larriaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo konizertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jalone Olabe

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

I z a d i

Sendabelarrak, dietetika eta kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

I R T A B E R N A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Maiatzak 1: ez dago, ez dugu eskubiderik

Bota diezaiogun begirada biluzi bat gure egoerari. Eser gaitezen emakume aurpegia duten gure barruetan... emakumea, eta gizateriaren historiako bazterkeriarik zaharrena jasaten ari garela konturatu gara. XXI. mendearen atarian... lanorduen bi herenak emakumeok egiten ditugu, eta munduko jabetzen ehuneko bata ere ez dugu eta sarreraren hamarretik bat baino ez dugu jasotzen. Urratu egiten duen esplotazioa da, marginazioan, dependenzian eta menpekotasunean oinarritua. Horixe da gizarte kapitalista eta patriarkal honen izendatzen digun leku miserabilia.

Baldintza berdintasunari buruz sistemak saldu nahi izan digun guztia kontu hutsa da, espejismo hutsa. Lan barik dauden 18 eta 25 urte bitarteko neska gazteen tasa %90eko da, eta eurak izango dira zabor-kontratuen prekariotasunaren eraginik handiena jasango dutenak.

Azken dekretuan proposatzen diren denbora partzialeko kontratuak iharduera marginaletara zuzenduak dira, eta ez bizibide oinarriko baterakoak; Europan era horretako postuak emakumeek bete izan dituzte batez ere. Dekretua gizarte honen pentsakera matxistan oinarritzen da, emakumea etxean jartzen du lanean, bereak

direla kontsideratzen diren lanak egiten, lanaldi bikoitza eginez eta merkatuko ekonomian erdizka bakarrik parte hartuz. Emakumeak etxean egotera baztertzea... kapitalarentzat negozio handi bat ere bada. Horrela, etxe-koandrearen lanarekin urtean 11 bilioi aurreratzen ditu Estatuak.

Euskadin emakumeon %79a langabezian gaude (10etik 7 etxean eta gainerako 3etatik bat langabezian). Eta lanpostu bat lortzen dugunok... sexuaren araberako soldata injustuetan egiten dugu (%21 gutxiago), izkutuko lanetan eta baldintza txarretan eta aukera berdintasunaren aurrean desabantailaz.

Kuadro ironiko eta dantesko honen aurrean, mobilizatu ordu dugu. Maiatzaren 1ak guri ere eragiten digu. Denon artean eraikitzen badugu izango da etorkizuna gurea. Gure inplikazioa presazkoa da.

Gure aurkako indarkeriari kaña!

EGIZAN

ARRASATE PRESS:

San Andres Herri Eskolako 5. mailako bost ikasle gara. Zuk guri mesede batzu egitea nahi dugu. Ea handitu dezakezun gure eskolako patioa, ezin baitugu ondo jolastu eta txandaka ibili behar dugu.

Ea posible den patioa desinfektatzea, auzoko gazteek txisa egiten baitute eta usain txarra egoten da eta nazka ematen digu.

Komeni da egunero garbitzea, zigarroak eta beste zikinkeria batzuk egoten direlako eta txikienek ahora eramaten dituztelako. Askotan, patioa hormak tontoketaz beteta egoten dira. Beraz, kasu horietan margotzea ere komeni da. Lau terdietatik aurrera ertzainen batek patioan zehar bueltatxo bat emango balu, hobeto. Horrela guk trankilago eta gustorago egingo genuke jolas.

SAN ANDRES

HERRI ESKOLAKO 5 IKASLE.

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Irakurtzeko ohiturarik baduzu?



Jose Ramón Petreñas
(30 urte)

Kooperatibako langilea

Ez dut irakurtzeko ohiturarik. Egunkaria astebukaretan, baina bestela ez.



Maribel Erle
(46 urte)

Etxekoandrea

Orain arte oso gutxi, baina orain hasi naiz liburuak irakurtzen.



Gregorio Etxenautia
(32 urte)

Langabetua


Bai, betidanik nobelak irakurtzea gustatu izan zait. Gehienbat suspentseko nobelak.



Sonia Zubizarreta
(19 urte)

Ikaslea

Escolan agintzen dizkidaten liburuak bakarrik irakurtzen ditut, baina nire kabuz ez.



Jose Ramón Betanzos
(53 urte)

Langilea

Lehen asko irakurtzen nuen, baina orain gutxi horretarako astirik hartzen ez dudalako.



Merce Gonzalez
(35 urte)

Etxekoandrea

Bai, badut irakurtzeko ohitura. Normalean nobelak irakurtzen ditut. Eta jakina, egunkariak ere bai.



Julio Sierra
(68 urte)

Jubilatua

Igandetan egunkaria, baina libururik irakurtzeko ohiturarik ez dut.



Teresa Guridi
(74 urte)


Etxekoandrea

Egunero, egunkaria goitik behera irakurtzen dut, eta aldizkariak ere bai.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak	
Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualetoia 79 05 00	
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11
Gurutze gorria	
Bergara	76 55 76
DYA	
Antzuola	76 62 91
Anbulatorioak	
Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16
Anbulantziak	
Gipuzkoako ambulantziak	45 87 44
Udaitzaingoa	
Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22
Ertzaintza	
Arrasate	79 71 99
Suhiltzaileak	
Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00
Matxurak	
Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	12 01 62
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
Garraioak	
Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19
Hirugarren adinekoentzako zentruak	
Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55
Monterongo liburutegia	
Monteron	77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 29	
Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.	
Larunbata 30	
Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.	
Igandea 1	
Egunez 22.00ak arte: Irizar. Erguin.	
Gauzez: Guallar. San Antonio.	
Astelehena 2	
Egunez 22.00ak arte: Amezua. Santa Marina.	
Gauzez: Estella. Matxiategi.	
Astearte 3	
Egunez 22.00ak arte: Ruiz. Magdalena.	
Gauzez: Mozos. Pedro Deunaren.	
Asteazkena 4	
Egunez 22.00ak arte: Morales. San Andres.	
Gauzez: Camacho. Oxirondo.	
Osteguna 5	
Egunez 22.00ak arte: Guallar. San Antonio.	
Gauzez: Corcuera. Musakola.	

29 OSTIRALA

ZINEA

«La Lista de Schindler». 6'30 eta 10etan.

KULTUR ASTEA

San Andres Herri Eskolan. Egunguztian zehar jolasak: 3.45etan oparien bolo-boloa, 4etan txokolatada.



MENDI ASTEA

Besaide Mendizale Elkar-teak antolatuta. Maitza-ren 2tik, 8ra. Ekintza ugari: diapositiba emanaldiak, mahai inguruak, txangoak..

HERRI URRATSERAKO AUTOBUSAK

Maiatzaren 8an. Irteera ordua, goizeko 8etan Garribaitik. Izenematea AED, Hiren edo Iturriotzen, maiatzaren 6an baino lehen. Prezioa, 950 Pta. 18 urtetik beherakoek dei egin AE-Dra, muga pasatzeko behar den agiriari buruz hitzegiteko.

Badatoz...

30 LARUNBATA

ZINEA

«La Lista de Schindler». 6'30etan eta 10etan.

DANTZA EMANALDIA

Madrialeko Diez y Diez taldearen « Haz de luna»; dantza garaikideko emanaldia. Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera 700 Pta, gazte txartelarekin 500 Pta.

BATZAR OROKORRA

Fagor Ederlan enpresaren Batzar Orokorra. Atxabaltako zaraia zineman. lehen dealdia goizeko 10'30etan eta bigarrena 11etan.

HITZALDIA

Gaia: "Egin" egunkaria. Hizlariak: Pepe Rei eta Egineko administrazio kontseiluko kide bat. Arratsaldeko 7.30etan, Aretxabaletako udaletxeko ganbaran.

KONTZERTUA

"Ezin Izan" donostiarren, "Monstruación" bartzelonakoen eta "Bap" andoaindarren kontzertua. Arratsaldeko 7.30etan, Gaztetxean. Sarrera: 400 Pta.

BERTSO SARIKETA

Emilio Urzelaiaren omenez, 15 urtetik 20 urtera bitarteko Deba Garaiko bertsolari-entzatzat. Bi saio: arratsaldeko 4.30etan kanporaketa eta gaueko 10.30etan finala, Oñatiko Santa Ana Antzokian.

"LA LISTA DE SCHINDLER"

Ostiraletik hasita eta asteazkenera arte, aste honetan izango da ikusgai Steven Spielbergen azken pelikula.



1 IGANDEA

ZINEA

«La Lista de Schindler». 6etan eta 9'30etan.

HAUR ZINEA

«Al Filo del Abismo». Amaia antzokian, arratsaldeko 5etan. Sarrera 200 Pta.

LEINTZ BERTSOTAN, APOTZAN

Maiatzaren 7an izango da urteroko bertso jaialdia, aurtan Nikolas Seguiolaren omenez. Bailarako bertsolari helduak eta gazteak izango dira kantari, afalostean, Apotzagako Auzo Etxe elkartearen. Afaritarako txartelak, Aretxabaletan Loramendi eta Gurean, Arrasaten AEDn eta Eskoriatzan Zarautarran, edo ohizkoei eskatuta.

KARTEL LEHIAKETA

1994 ko San Juan Jaiek iragartzeko. Arrasaten bizi edo errotatutako edozein pertsonak har dezake parte. Teknika librean izango da. Irabazleak 100.000 Pta-ko saria jasoko du. Kartelak maiatzaren 20a baino lehen udaletxeko Kultura Departamentura bidali behar dira

2 ASTELEHENA**ZINEA**

«La Lista de Schindler», 6etan eta 9'30etan.

MENDI ASTEA


Diapositiba emanaldia: "Patagoniako pareta ikusgarrietan eskalatzen". Txus Martin arrasatearrak burututako hainbatigoera. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta.

HITZALDIA

Gaia: "Euskal Nortasuna". 18.45etan, Eskola Politeknikoan. Hizlariak: Jose Antonio Sainz, Donostiako orfeoiaren zuzendaria eta Ruper Ordorika abeslaria.

KONTZERTUA

"Rhythm Collision" kaliforniako taldearen eta "The Harries" holandarren kontzertua. Arratsaldeko 7etan, Gaztetxean. Sarrera 400 Pta.

**KONTZERTUA**

Astlehenean, The Harries eta Rhythm Collision taldeek kontzertua eskainiko dute Arrasateko Gaztetxean. Euskadin emango duten bakarra izango da, beraz ez galdu aukera!

3 ASTEARTEA**ZINEA**

«La Lista de Schindler». 6etan eta 9'30etan.

MENDI ASTEA

Diapositiba emanaldia: « Nafar Pirineoan esploraketak, N-3 siman ». Goi mailako espeleologia, 800 metrotarainoko barneraketekin. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Besaide mendizale elkarteak antolatuta.

HITZALDIA

Hizlaria: Xabier Unzurrunzaga, Donostiako Arkitektura Eskolako zuzendaria. Arratsaldeko 18.45etan, Eskola Politeknikoan.

4 ASTEAZKENA**MENDI ASTEA**

Diapositiba emanaldia. « Karakorum Highway « bidetik Mountain bike bizikletaz trabesia. Aitor Larrañaga eta Josu Olaskoaga. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta.

INGURUGIROARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Gaia: «Zain dezagun gure inguru». Hizlaria: Jon Zubiria. Uribarriko zaharren egoitzan, arratsaldeko 5etan. Antolatuzailea I.C.T.E.

AQUAGYM IKASTAROA Aretxabaletako kirol-etxean, uretako gimnasia ikastaroa maiatzetik 3tik 31arte. Egunak astearte, asteazkena, osteguna eta ostirala.

Plaza mugatuak, gutxienez 10 pertsona eta gehienez 15. Informazio gehiago nahi izan ezker, 796461 telefono zenbakira dei egin.

AGERIKO II. MARGO LEHIAKETA

Soraluzeko udalak antolatuta. Maiatzaren 15ean. Gaia: Soraluze. Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek Soraluzeko udaletxean eman beharko dute izena, maiatzaren 15an, goizeko 9etatik 10etara. Nahi duten guztiak parte har dezakete. Bi maila: 14 urte artekoentzat eta 14tik gorakoentzat.

KOMIKI ERAKUSKETA

Monterronen, maiatzaren 5erarte. Gaia: Sexuen arteko desberdintasuna. Ordu-tegia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, goizeko 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

5 OSTEGUNA**ZINEA**

"Night on Earth", 9.30etan Amaia Antzokian. Sarrera 300 PTA.

MENDI ASTEA

Mahaingurua. « Gure mendien ingurugiroaren orekan eragina duten hainbat faktoreren azterketa ». Elkarte eta erakunde ezberdinetako ki-deek hartuko dute parte. Monterronen, arratsaldeko 7etan. Besaide mendizale elkarteak antolatuta.

HITZALDIA

Hizlaria: Xabier Lete. Arratsaldeko 18.45etan. Eskola Politeknikoan.

HITZALDIA

Gaia: "Zergatik praktika antiklerikala" eta "Eliza, sexua eta gizartea". Arratsaldeko 7.30etan, udaletxeko pleno aretoan. Hizlaria: Sabino Cuadra.

LITERATUR ETA ARGAZKI LEHIAKETA

Jarraik antolatuta. Deba Garaian bizi edo ikasten duen edonork parte har dezake. Bi kategoria: 16 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak. Lan guztiak euskaraz egin behar dira eta orijinalak izan behar dute. Literatura atalean hiru sail: prosa, poesia eta bertso paperak. Lanak maiatzaren 27a baino lehen bidali beharko dira gazte informazio bulegora. Sari banaketa ekainaren 29an egingo da.

HAITZ-ESKALADA IKASTAROA

Besaide Mendizale elkarteak antolatuta. Eginora. Maiatzaren 14-15 edo 21-22an. Maila: hastapenekoa. Izene-matea maiatzaren 3, 4 eta 5ean, 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan. Beharrezkoa da federatuta egotea.

“Nazka ematen du ustelkeriaren

kiratsak. (...)

Orain arte ezagutzera eman diren ustelkeria kasuak, (...) larriegiak dira pekatu arin batzuk bezala kontsideratuak izateko. Tamalez, bizitza politikoaren gainean zikinkeria kapa bat besterik ez dute osatzen. Gogoratu gainera kasu guzti hauek komunikabideen bidez ezagutu direla eta ez ‘nazio egoerari’ buruzko debatean Presidenteak sinestarazi nahi izan zigun bezala, Gobernuari esker.

Horrela hasitakoa, pixkanaka-pixkanaka, katea ezin kontrolatu bat eratzten joango da, mundu guztiak tartaren zati batekin geratzeko eskubidea duela uste izango baitu. Demokrazia ikuspuntutik kondenaigarriagoa da alderdiaren finantziaketa etekin pertsonala baino. (...)

Konponbidea ez da (ustelkeriaren kontrako) proposamen gehiago edo gutxiago izatea, eta ez beharrezkoak ez direlako, arazoa gainditzeko behar dena benetako borondate politiko tinkoa delako baizik, bestela zinismo eta hipokresia saia besterik ez da. Eta gehiegi dira.”

Esther Larrañagak 94-4-23ko **Egunkaria**


“Zuzenean kantatzeko aukera bakarra egia koskor batzuk esateko aprobeztatzeak, berriz, zera ikustarazten du, diferituko saio aukeratueta bertsolariok eduki politiko-satiriko-kritikoa zentsuratu egiten dela. (...) Hurrengoan, Lazkao Txikiri guardia zibilek galdetu ziotena galdetuko digute: ‘Y qué van a canta?’ ‘No sabemos’. No sabemos, baina bertsoak ziria ez du urruti ibiliko. (...)

Bertsolaritza informazioaren zirkuito alternatiboa da, besteak beste, zirkulazio diagonal, kontrainformaziozko jolasa. Hori nola uztartu hedabideetan ere presentzia izatearekin? Nekez, hedabide publikoetan obsesio pribatuak nagusi diren artean”.

Jon Sarasuak 94-4-23 **Egunkaria**

Zer da “Adore” eta zelako laguntza eskeiniko diozue?

“**A**dore” herri ekimenaren helburuak, droga trafikoaren inguruan dagoen ustelkeria salatu eta gizartean, drogari buruzko eztabaida bultzatzea dira. Adore orain dela sei hilabete sortu zen eta barruan hegoaldeko 50 talde inguru daude lanean, tartean Arrasateko Askagintza eta Hies Ekimena. Baina horietaz gain, kazetari eta abokatuak ere parte hartzen dute.



Haritz Azkarraga
Arrasateko “Adore”
taldeko partaidea

Azken horien lagutzaz, behin eta berriz epaileen aurrera eraman da droga trafikoaz zerikusia duen “Navajas txostena” edo “Galindo kasua” famatua. Izan ere, droga trafikoaz edo diru zuriketaz zerikusia dutenen aurka jardun dezatela esigitu nahi diegu epaile eta fiskalei. Gainera, drogomenpekotasuna gainditzeko erabilitako dinamika penalizatzaileak porrot egin duela erakutsi nahi du Adorek, eta bide batez, heziketa, prebentzio eta normalkuntzaren alde apostu egin nahi du.

Esan bezala, Arrasateko Askagintza eta Hies Ekimena hasieratik daude Adore barruan eta orain, herriko hainbat gaztek taldetxo osatu dugu. Gure helburua, gainontzeko herritarrei Adorek egiten dituen ekintzen berri ematea izango da. Beraz, ekintza puntualak egiteko batuko gara eta Adorek antolatuko dituen mobilizazioetan ere parte hartuko dugu. Adibide bezala, droga trafiko eta ustelkeriaren aurkako sinadura bilketa egiten hasi gara eta zapatuan, droga trafiko eta ustelkeriaren aurka Donostian egingo den manifestaziora joango gara Bukatzeko Jon Salaberri gogoratu nahiko nuke, bere sinaduraz eta beste batzuenaz, Informe Navajas delakoari kereila jarri baitzaio.



**MIGUEL ALTUNA
INSTITUTUA
(ELEMENTALA)**

BERGARA

**HEZKUNTZ ESKAINITZA
REM (Batxilergo Orokorra)**

GOI MAILAKO BATXILERGOAK

¥ **BTI (Batxilergo Tekniko Industrial)**

¥ **BAG (Batxilergo Administratiboa)**

Aurreinskripzioa: Maiatzaren 4tik 18ra
Argibideak: Ibargarai, 1
Tfnoak: 76 24 91 - 76 38 40
Ordutegia: Goizeko 9etatik 13ak arte

LHII (LANBIDE HEZIKETA II)

¥ **ADMINISTRATIBOA**

¥ **ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA**

¥ **MEKANIKA**

MODULO PROFESIONALAK III

¥ **MEKANIKAGINTZA**

¥ **ENTREPRESEN**

ADMINISTRATIOA

Txostengileen bazkaria

Interbentzio Gune Partehartzaileetan txostena azaldu zutenek, bazkaria izan zuten ostiralean. Maltzaga-Urbina ardatzaren gainean 30 txosten inguru aurkeztu ziren. Eztabaida prozesua bukatu ondoren, orain emaitza jakitea baino ez da falta. Maitzaren 6an izango da hori.



700 ume kantuan

Joan den zapatuan, Deba Garaiko eskolen arteko abesbatzen VII. topaketa izan zen Musakolako Kiroldegian. 14 taldek abestu zuten. Besteak beste, San Frantzisko Xabier, San Viator, Umezaintza, Aranzadi eta Almen ikastolek eta Musakola eta Erguingo Herri Eskolek. Guztira, 700 ume inguruk abestu zuten. Jende ugari hurbildu zen saioa entzutera eta gradak zein behean jarri ziren 900 jarlekuak, jendez bete ziren. Hori dela eta, datorren urtean seguruenik bi saio egingo dira.

Bisitak

Zutik alderdiak eta CC.OOek gonbidaturik, asteartean Frantziako UNEF, Ikasleen Sindikatuko lau kide, Arrasatera etorri ziren. Asteartean, berriz, Eskola Politeknikoko Biteri Ikatetxe Nagusiak antolatu duen hitzaldi zikloaren barne, Joseba Arregi kultura kontseilaria etorri zen euskal nortasunari buruz hitzegitera.

Ibilaldia

Domekan, Deba Bailara Bizi Bizirik taldeak antolatuta, Etxezarreta eta Epele inguruak bisitatu zituzten

hainbat lagunek. Autobi-deak Etxezarretan zelan eragin dezakeen eta Epeleko errepideak aldatu duena ezagutu zuten.

JAIOTZAK

- Nerea Petreñas Mateo. Apirilaren 10ean.
- Iker Ugalde Hernandez. 22an.

EZKONTZAK

- Emilio Moreno Sanz & Josune Gorosabel Iriondo. Apirilaren 22an. Zibilez.
- Francisco Javier Perea Aranda & Rosario Gomez Garcia. 23an. Zibilez.
- Juan Manuel Gay Amate & Begoña Saenz-Azkunaga Guerrero. 23an. Elizaz.
- Agustin Camacho Jimenez & Segunda Barquero Tena. 23an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Victoria Mujika Alzola. Apirilaren 20an. 82 urte.
- Flora Gallastegi Alberdi. 21an. 76 urte.
- Felisa Arana Albistegi. 23an. 90 urte.
- Petra Anduaga Lizarralde. 24an. 86 urte.
- Antonia Belmar Abad. 24an. 77 urte.
- M^a Teresa Muñoz Etxebarria. 25ean. 79 urte.

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g
Gipuzkoa Etorbidea
Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Berango
ALTZARIAK



XABIER ZUBILLAGA *

AFAPA Arabako Gizakia Helburuko Familiarteko eta lagunen Elkarte

Datorren maiatzaren 10etik 30era bitartean Monterron Jauregian pintura erakusketak egingo da Arrasateko Udalaren laguntzaz eta AFAPAK antolatuta, Arabako Gizakia Helburu edo Proyecto Hombre-ren alde. Eta Deba Garaiari horren berri eman nahi genioke, eskualde honetan Gizakia Helburuk duen eragina dela eta, eta erakunde horren barruan AFAPAK, familiarteko eta lagunen elkarte moduan duen zeregina dela eta.

Gizakia Helburuko Zuzendaritzako organu baten, Jeiki Fundazioaren ekimenez, eta horren erakundeak duen filosofian oinarrituta sortu zen AFAPA ere, nolabait drogaren kontrako borrokarari irtenbide eraginkorra eman nahirik.

Eusko Jaurlaritzak onartutako estatutu batzuk arau-

tzen dute Elkarte, Autonomi Estatuaren 9. atalak ezarritakoaren arabera.

Elkarte honetako partaide edo bazkide, hala nahi duen edozein pertsona izan daiteke. Elkartearen iharduerak, helburuak eta funtzioak hiru dira batez ere:

- Edozein droga motaren

.....
*Solidaritatezko
mezua bidali
nahi nizueke,
ziur nago eta,
denon artean
posible izango
dela Drogari
ez! esatea*

aurkako borrokan Gizakia Helbururekin batera elkarlanean jardun eta hari laguntzea.

- Gizarteari gai honen inguruko informazioa eman eta sentsibilizazioa lortzeko balio izango duten kultur-ekintzak antolatu eta ekin-tzetan parte hartzea.

- Dagozkion kuoten bitartez eta borondatezko eskaintzen bidez aurrekontuen zorra eta azpiegiturako beharrianak finantziatzea.

Bistakoa denez, aukera zabalak daude, baina eskualde honi eragiten dion arazo, drogaren ingurukoa, larria dela konturatuta, eta gure gizartetik izurrite hori baztertzeko behar den ahalaginak nolakoa izan behar duen badakidanez, izurrite horren aztindua jasaten duzuen guztioi solidaritatezko mezua luzatu nahi nizueke, ziur nago eta, denon artean posible izango dela Drogari ez! esatea.

Gasteizko San Inazio 2an izango gaituzu zain.

* AFAPAKO

LEHENDAKARI-ORDEA

USTEAK USTE

USTELKERIA

Hitz familiarra, ezaguna azken garaietan, zoritxarrez, Ustelkeria politikoa, politikarien ustelkeria. Gizarte honen garapenerako beharrezkoa den markoa diseinatzeko deituak eta aukeratuak izan diren pertsonen ustelkeria. Egoera larria. Ez dakit. Ez dakit nolakoa izango den ikusitako lotsagabeko kasu hauek jasateko herriak behar duen gaitasuna. Nik ezin izan dut irentsi.

Zer egongo ote den han eta hemen...! Hemen ere bai, Euskal Herrian bertan. Ez dugu zergatik joan behar Madrileraino..., epaitegietan ba omen daude antzeko txantxulo batzuk...

Hala ere, Roldan eta Rubio kasuak bereziak izan dira. Horien ustelkeriak txunditurik utzi baikaitu, gehiago arduratzen naiz, oraindik, politikari gehienek izandako isiltasunarengatik. Egia da bi horienkin gogor sartuko direna ... baina, denak zerbait gordetzen ari direla dirudi ... denak ustelduta daudela deritzot. Denak bildurrez: "Ezin gehiegi hitz egin badaezpada..."

Ene, koitadua...! Gixaixoak gu denok, inoxenteak...! Nork esan zigun mundu hobe bat izango genuela Franco desagertu ondoren...?

Egongo al da norbait hurrengo hauteskundeetan botoa emateko arrazoiak erakutsiko dizkidana? Eskertuko nizkioke... Beharbada, ez zait besterik bururatzen eta, garbi jokatzeko duten politikarien ahotsak ausartiago izan behariko du, gutxienez, hemendik aurrera.

JOSE RAMON ELORTZA

**EDERRA
TABERNA**


Iturriotz, 12 ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Lantegiak arkitekturako sari ugari jaso du.

Roneo zaharra bota eta merkatal zentrua egingo da

Zigarrolako Roneoren lantegi zaharra bota egingo da aurki, eta orube horretan merkatal zentru handia eraiki, enpresa jabeak, Viuc S.Ak, darabiltzan asmoen arabera eta oraindik ofizial egin ez den arren.

Asmoa lehendik bazegoen ere, eraikina oso egoera txarrean dagoenez, eta oso aprobetxamendu eskasa izango lukeenez, bota eta berri berri egitea erabaki du jabetzak.

Proiektu horren gestio osoa Anboto inbiliarriak egingo du, eta dagoeneko herriko merkataria batzuk eta kanpoko batzuk ere eginik omen dute eskaera. Altzari, elektrarategailu, oinetako denda eta antzekoak jarririk dira merkatal zentruan, eta baita jatetxe

bat eta aparkaleku ugari ere. Herriko merkatariei lehentasuna emateko asmoa dago.

Lantegi horrek baditu eraikuntza aldetik berezitasunak. 1964an eraiki zuen Olanar arkitekto eta injinari ezagunak, eta porlaneko egitura trinkoz egina dago. 2.500 metro ditu behean, eta beste 4.100 goian. Altueran ere 13 metro. Lantegia naizoarteko sari ugari jasotakoa da, eraikuntza aldetik dituen ezaugarriengatik aurrekaldea teilatutik zintzilik dago eta, oinarri barik.

Lantegi horrek urteak daramatza, hutsik, eta aurretik Roneoko biltegia eta butano botilen konponketarako Zerrajeraren lantegia ere izan zuen.

Trenbidea berreskuratzea

Trenbidea oinezko eta txirindularientzat berreskuratzearen aldeko taldea Eli Galdos diputatu nagusiarekin bildu zen osteazkenean. Galdosek oso harrera ona egin dio proiektuari eta baita adostasun pertsonala eta erakundearena adierazi ere.

Bestalde, proiektua landu dutenak zoriondu egin ditu, gaia egoki eta oso momentu egokian aurkeztu delako: azpiegitura berriak egiteko orduan horrelako inizatibak kontutan izan behar direlako, eta momentu honetan orain urte batzuk baino errazago izango delako horrelako asmobati ekitea.

Josu Bergararekin, Garraio eta Herrilan sailburuarekin, izandako bileraren erantzun ofiziala ere iritsi da. Bertan, Bideen Plan Berezia erredaktatzeko asmoa ematen da aditzera, autobia/autopista, egungo errepideak hobetzea eta trenbide zaharraren ibilbidea berreskuratzearen bideragarritasunak jasoko direlarik.




MEDIKU ZENTRUA

UDALAITZ

RADIOLOGIA • SCANNERAK
• ANALISI KLINIKOAK •
• EKOGRAFIK •

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera
 9etatik 1etara eta
 3etatik 7.30era

Ferrerias, 56 Tfnoak: 79 44 22 eta 79 44 56





Epaiketek ezertarako ez dutela balio adierazi zuten antimilitaristek.

Intsumisoak ez dira epaiketetan aurkeztuko

Asteazkenean Arrasateko talde antimilitaristak prentsaurrekoa eman zuen, aurrerantzean intsumisoek zein jarrera jarraituko duten azaltzeko. Antimilitaristek azaldu zutenenez, hemendik aurrera ez dira epaiketetan aurkeztuko, eta joatekotan ez dute tribunala errekonozituko. Hori bai, nahiz eta Euskadi mailako antimilitarista guztiek gauza bera egingo duten, erabakia guztiz pertsonala izango dela adierazi zuten. Beraz, norbaitek epaiketetan aurkeztea erabakiko balu, ez litza-teke oztoporik jarriko. Antimilitaristek adierazi zutenenez, lotsagarria da ustezko delitu

bera egiteagatik epaileek zigor desberdinak ipintzea. Horregatik, epaiketek ez dutela ezertarako balio azpimarratu zuten.

Dagoeneko arrasateko lau intsumiso epaitu dituzte (Ion Gomez, Mikel Beitia, Josu Galdos eta Igor Uribesalgo) eta beste hiruk epaiketetan aurkezteko deia jaso dute (Iban Vega, Ander Santiago eta Iñigo Ira-suegik). Beraz, epaiketek aurrera egingo dutenez, elkartasuna adieraztea garrantzitsu-a dela eta intsumisioaren aldeko manifestua sinatzeko aukera zabalik dagoela gogoratu zuten.

Arrasaterako dirurik ez

Foru Aldundiak hainbat kirol proiekturarako dirulaguntzak ematen ditu. Arrasateko udaletxeak bost kirol-proiektu aurrera eramateko asmoa aurkeztu zuen, baina aukeratutako proiektuen zerrenda bidali du diputazioak eta Arrasaterako ez da ezer aurreikusten. Diputazioaren erabakia behin-behinekoa denez, udalak idatzi bat bidaliko du azalpenak eskatuz.

Hilerrirako argiak

San Kristobal hilerrian argiak jarriko dituzte. Hasiera batean, enterramenduak egunez egiteko erabakia zegoen harturik. Baina orain, argiak jartzea erabaki denez, enterramenduak gauzez edo arratsaldez ere egingo direla uler daiteke.

Ostarkuri beste isun bat

Ostarku dantzalekuari beste isun bat jarriko diote, aurrez jarritako zigorra bete ez duelako. Orain, itxita egongo da dantzalekua egun batzuetan zehar.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76
ARRASATE



Apirilaren 18an hasi ziren greban 24 langileak.

Santa Agedako garbiketazerbitzua greban

Santa Agedako San Juan ospitala garbitzeaz arduratzen diren hogeitalau langileek greban jarraitzen dute. Langileak, Compasa enpresa donostiarraren bidez daude kontratatuta eta greba egiten hasi direnetik ez dute enpresarekin harremanik izan, nahiz eta enpresari ahoz nahiz idatziz negoziatzeko eskatu. Aintzinasuna dela eta jasotzen den dirua, bost urteren buruan eman nahi die Compasak eta langileek, orain arte moduan hau da, hiru urtero, jaso nahi dute. Gainera, behin-behineko kontratuak betirako bihurt-

zea eta lan komenioan aldaketarik ez gertatzea eskatzen diote enpresari.


Jaurlaritzarekin hitzartu zutenaren arabera, langileek zerbitzu minimoak betetzen dituzte, 35 ordu egunero. Baina langileek salatu zuten, ospitaleko lekaime, fraile, gaiso eta superbisore batzuk garbitzen dute geratzen dena. Horregatik, prentsaurrekoan "eskirol lana egiten ari direnei" ekintza horrekin bukatzeko eskatu zieten. Dena den, lan inspektorearen aurrean eta Eusko Jaurlaritzan ere salatu dute euren egoera.

Zoru Urbanizaezina

Hasiera batean ontzat eman diren zoru urbanizaezinaren inguruko arau osagarriak zeintzuk diren azaltzeko, bilera egin da udaletxean. Bileran, udaletzeko arduradunek arau horiek azaldu zizkieten auzoetako alkate eta biztanleei. Udalak, kriterioak markatu ditu eta orain nahi duenak alegazioak aurkezteko aukera izango du. Alegazioak jaso ondoren eta behin-behineko onespena emanda, Diputaziora bidaliko da azken erabakia har dezaten. Udalak egingandako agiriaren arabera, besteak beste urbazterrak, aztarnategi arkeologiko inguruko lurrak eta paisaiaren zati direnak babestuko dira.

Aurrekontuak

Udal Aurrekontuak onartzeko Udal Plenoa aste honetan egitekoa zen arren, astebetetz atzeratuko da onarpena. Azken zehaztasunak egiten ari dira batzorde ezberdinak, eta alderdiak emendakinak prestatzen. Datorren ostira-lean onartzea espero da.



Gipuzkoako Espezialitate Odontologikoetarako Zentrua, E.M.

Centro de Especialidades Odontológicas de Guipuzcoa, S.L.

Espezialitate guztiak

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia Finkoak
- Protesiak
- Endodontzia
- Umeak, gauzaeztanduak, etab...

Zure hortz-osasuna zaintzen laguntzen dizugu.

BERGARAKO KLINIKA

Simón Arrieta, 3-2 B
Tf. (943) 76 38 54

ARRASATEKO KLINIKA

Iturriotz, 7 behea
Tf. (943) 79 73 88

ZUMARRAGAKO KLINIKA

Soraluze, 1-1 ezk.
Tf. (943) 72 46 47



Jesus San Miguel Apaiza, **Lucas Iruretagoien**, **Jose Zubietta** eta **Fermin Altube**, Frantziskanoak, urrezko eztaiak bete dituzte apaiz lanetan, eta merezitako omenaldia jaso zuten asteartean Donostiako Seminarioan. Meza Santua, Jose Mari Setien Gotzaiak eman zuten eta ondoren omendu guztiek bazkaria izan zuten.



Andres Aberasturi

kazateria, Arrasateko Fagorren egon da asteartean. Aberasturik, Fagor Electrodomesticos-ek bere produktuen aurkezpenarako Hispasat Satelitearen bidez emititu dituen programetan hartu zuen parte. Aberasturirekin batera, Iñaki Belategi gerentea, Fabian Bilbao gerentekomertziala eta Jabier Sotil egon ziren.

Zorionak! **Josune** eta **Emilio**. aurreko eguakotzean ezkondu ziren Arrasateko Epaitegiko ezkon-aretoan. Lagunen partetik bihotz-bihotzez, zorionik haundixena bixei, hemendik aurrera be halaxe jarraitu daixiela, alkar maitatuz.



**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 08 15

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

IZEN PROPIOAK



50. urteko kinttoek, hau da 1929 jaio-takoek, egun berezia izan zuten joan zen larunbatean. 12'30etan meza izan zuten San Frantzisko elizan eta gero bazkari goxoa

Hostalean. Bestalde 69. urteko kinttoek ere egun hori aprobetxatu zuten elkartu eta aspaldiko nahiz oraingo kontuetaz hitz eginez, egun ahaztezina pasatzeko.



Udalpeko elkartean, plaka bat jarri dute udalpeko ereserkiaren bertsoaz. Bertsoak Iñaki Aizmendi «Basarrirenak» dira eta musika, berriz, Pedro Ugaldek egin du.

Mondragoitarrek gera ta benetakoak hainbat tiratzen gaitu geronen txokoak. Langile, trebe, zintzo ta umoretsuak zaratatsuak baino bihotz onekoak. Zeru txiki gureak Udalpe izena gazte ta zaharrak alkar maitatzen dutena. Nahi gabeak ahaztutzeko toki goxoena ez ta damuz irtengo ez honuntz datorrena. Mondragoitarrek gera ta benetakoak hainbat tiratzen gaitu geronen txokoak.

● **Asier Aranguren**, 29 urte, atxabaltarra. Eusko Ikaskuntzak beka bat eman dio herri komunikabideak aztertzeko. Asierrek jorratu beharko duen gaia, euskerazko prentsa lokala da. Euskal Telebistako kazetaria da eta larunbateko kirolez kirol saioko aurkezlea.

● **David Florencio Peromingo**, 18 urte, arrasatearra izan da "sexuen arteko desberdintasuna" izenburupean antolaturiko komiki lehiaketaren irabazlea. David ikaslea da.

● **Itziar Zabalak**, 13urteko arrasatearrak, zilarrezko domina lortu du Judoko Euskadiko Txapelketan, 15 urtetik beherakoen kategorian. Itziarrek 4 urte inguru daramatza kirol horretan eta gerriko berdea du.

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA


Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

*Mendi
taberna*

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54



GOIMAILAKO OSTALARITZA ESKOLA
ESCUELA SUPERIOR DE HOSTELERIA

Oñati

1994-95 IKASTURTERAKO ESKAINTZA

3. Mailako moduloak:

* Elikagaien Industrietan
Tekniko Espezialista



* Harrerako Tekniko
Espezialista

2. Mailako moduloa:

* Sukaldaritzako tekniko
Laguntzailea



Izenematea: Maiatzaren 4tik 18ra
Arrasateko Eskola Politeknikoan
Informazio gehiago: Tfnoa: 71 61 94 - 71 61 90

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Une erabakiorrak gainean

Bukatu da dagoeneko, "Final Four"-ean sailkatzeko fasea, eta argitu dira, beraz, azken asteetan zehar egon diren zalantza eta usteak. Zaldibar-ko txapelketa, makina bat zeresan eta esamen eman duena, une erabakiorrean sartu da. Une erabakiorra irabazlea nor izango den jakiteko. Bestalde, Uribe Auzoko txapelketa, bero-bero eta arazorik gabe doa aurrera. Txapelketa horretan, Korinto

taberna taldearen lana azpimarratuko dugu. Zaldibarko txapelketan benetan petral ibili ondoren, badirudi Korinto taldea irartzartu egin dela eta A multzoan lehen postuan dago, 10 punturekin. 5 partidutatik, 5ak irabazi ditu.

Txapelketa honetako lehen fasea maiatzaren 21ean bukatuko da eta multzo bakoitzetik 4 talde sailkatuko dira.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
PEPELUS	7	5	1	1	25	15	11
ARLUTZ	7	4	2	1	29	22	10
LOS HEREDIA	7	4	0	3	28	24	8
NABARROS	7	3	1	3	27	25	7
POTROAK LARATEGI	7	1	4	2	20	24	6
REVOLUTION ROCK	7	3	0	4	23	30	6
FRANCISCANERR	7	2	1	4	32	32	5
ZOTZ	7	1	1	5	22	34	3

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
FOSFOROS	7	6	0	1	38	23	12
MIKELOS	7	4	2	1	26	21	10
ZULUS	7	4	0	3	28	19	8
ANBOTOSTE K.T	7	4	0	3	25	21	8
BUKANAK	7	4	0	3	28	25	8
UGLYS TXINATO	7	2	1	4	32	36	5
JEY JULIWER	7	1	1	5	19	25	3
SOKOAKOAK	7	0	2	5	13	39	2

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ARGI IBILI	7	6	0	1	56	20	12
IRATI S.T.S	7	5	0	2	32	25	10
ARRASATE KIROLAK	7	5	0	2	25	19	10
TOVARITX	7	4	0	3	29	31	8
SUM. UGARTE	7	4	0	3	34	21	8
MOTZ	7	3	0	4	30	33	6
KAKAJAURI	7	0	1	6	19	46	1
TRONKOTEAK	7	0	1	6	16	46	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
ZULOAK	7	5	1	1	22	20	11
TRIKITI	7	5	1	1	37	15	11
TUTTIFRUTTI	7	3	2	2	22	20	8
LENITZ GARAGAR.	7	4	0	3	29	19	8
DANOK LAGUN	7	3	0	4	22	23	6
CARBUROS	7	2	2	3	19	24	6
ARR. KRISTALDEGIA	7	2	1	4	31	33	5
AC SURCOS	7	0	1	6	23	51	1

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea

Corinto Taberna	10
Ola tailerrak	10
Semen u'p	9
Lo+ X	8
Borroch'n roll	8
Altza Porru	5
Elisabeth	3
Kabiru	3
Lore Gazteak	2
Trotabares	2
No comment	0

B taldea

Bodisca	11
Nuevo taberna	9
Solano 7 mares	8
Ganbelas	7
Yomai	6
Ke Oxtias!!!	5
Berango Sukaldeak	5
SorGol	3
Lokis	2
Atxanta Ke Te...	2
Bayer de Leintz	2

D taldea

Stocker's	11
Equs	10
Lautherbrunnen	8
Hirei	6
Belo eta Txapi	6
Top Hits	5
Mobil. Arenaza	4
Estrella Floja	4
Los Insaciables	3
Ezkinako hontzak	2
Etxe Mobiliario	1

E taldea

Los Dimy	12
Txeyenex	9
Beti Gazte	8
Fancy Bois	8
Excava. Lete	6
Kirten Tropel	5
Jo Ta Akabau	5
Los Dalton	5
Los Garimbas	2
Auff dem Koffer	0
Borroch'n roll	0

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokiako ondoan)
ETORRI IKUSTERA!



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria

Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Arrisku gerentzia
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE



Asteburu honetan 4 norgehiagoka izango ditugu. Eta egia esateko, denak oso garrantzitsuak dira. Zapatuan, 11etan, Arlutz eta Zuloak izango ditugu aurrez aurre, 12etan Mikelos eta Argi Ibili. Domekan 11etan Pepelus eta Trikitik neurtuko dituzte indarrak eta 12etan Fosforos eta Irati STS taldeek.

BELARRIRA

◆ **Epaileak.** "Final Four" fasean jokatuko diren neurketetarako epaileak antolatzaileek aukeratuko dituzten arren, final erdietan eta finalean taldeen esku geratuko da epailea aukeratzeko ardura.

◆ **Golak.** Aste bukaera honetan, Zaldibarko txapel-taren barruan, jokatu den jardunaldian, guztira 103 gol sartu dira. Gol gehien sartu duen taldea Arrasate Kristaldegia izan da, 11 golekin. Zotz eta Tronko-teak taldeak, ostera, kanporatuta geratu dira partiduetara aurkeztu ez zirelako. Uribe auzoa txapelketan, guztira 168 gol sartu dira; gol gehien Altza Porru eta Beti Gazte taldeek sartu dituzte, bakoitzak 12 gol sartu ditu eta gol barik beste bi talde ditugu: Hirei eta Kirten Tropel.

◆ **Atsedena.** Uribe auzoa txapelketan, datorren astebukaeran atsedeen eguna dutelako, 4 taldek ez dute jokatu. Taldeak, Ola Tailerrak, Atxanta Ke Te Merece, Estrella Floja eta Fancy Bois dira.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Los Heredia 5 - Potroak Lorategi 1
 Revolution rock 1 - Zotz 0
 Arlutz 2 - Pepelus 2
 Nabarros 4 - Franciscanerr 3

B TALDEA

Zulus 3 - Fosforos 4
 Sokoakoak 2 - Antiboste KT 8
 Mikelos 3 - Jey Juliwer 2
 Uglys Txinato 2 - Bukanak 4

C TALDEA

Argi Ibili 2 - Suministros Ugarte 3
 Arrasate Kirolak 1 - Tronkoteak 0
 Tovarixtx 5 - Kakajauri 3
 Irati S.T.S 5 - Motz 6

D TALDEA

Trikiti 1 - Zuloak 2
 Arrasate kristaldegia 2 - AC Surcos 3
 Danok Lagun 7 - Carbueros 1
 Tuttifrutti 5 - Leintz Garagardotegia 2

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Lore Gazteak 6 - Altza Porru 12
 Trotabares 6 - No Comment 1
 Ola Tailerrak 6 - Elisabeth 4
 Semen U'P 6 - Lo + X 4
 Borrock'n roll 6 - Kabiru 4

B TALDEA

Ganbelas 4 - Lokis 2
 Bodisca 5 - Yomani 2
 Atxanta Ke Te 4 - m Bayer de Lenitz 3
 Solano 7 mares 6 - Nuevo taberna 6
 Sorgol 3 - Ke Oxtias 7

D TALDEA

Top Hits 2 - Hirei 0
 Equus 4 - Los Insoziables 2
 Estrella Floja 3 - Stocker's 4
 Etxe Mobilario 1 - Mobilario Arenaza 5
 Ezkiñako hontzak 2 - Belo eta Txapi 3

E TALDEA

Los Dalton 7 - Auf dem Koffer 2
 Los Dimy 10 - Borrock'n roll 1
 Fancy Bois 3 - Txeyenex 4
 Kirten tropel 0 - Excav. Lete 6
 Los Garimbas 2 - Beti Gazte 12

Agricentro Otxoa



- **Nekazaritza:** haziak, ongarriak, produktu agrokimikoak etb.
- **Abelazkuntza:** pentsuak, botikak, aberentzako materiala, baserrirako tresneria etb.
- **Lorazaintzako produktuak:** ureztatzea, keramika, ongarriak, etb...
- **Etxeko animalientzako janariak:** (txakur, katu, txori eta arraintzakoak)

Musakolako Industrialdea, z/g.

Tfnoa: 79 86 70 - 79 17 79

ARRASATE



ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 30

Zaldibar

11:00 Arlutz - Zuloak
12:00 Mikelos - Argi Ibili

Igandea 1

Zaldibar

11:00 Pepelus - Trikiti
12:00 Fosforos Irati S.T.S

URIBE AUZOA

Larunbata 30

Iturripe A

09:00 Jo T aAkabau - Excav. Lete
10:00 SorGol - Lokis
13:00 Ganbelas - Yomai
14:00 Ezkiñako Hontzak - Hirei
15:00 Trotabares - Elisabeth
16:00 F.C Equis - Stocker's
18:00 Lautherbrunnen - Mobilia. Arenaza
19:00 Los Dimmy- Txeyenex

Iturripe B

09:00 Semen U'P - Kabiru
10:00 Kirten tropel - Beti Gazte
11:00 Korinto Taberna - Lo + X
12:00 Solano 7 mares - Ke Oxtias
13:00 Los Dalton - Borrock'n roll
14:00 Lore Gazteak - No Comment
15:00 Bodisca - Bayer de Leintz
16:00 Top Hits - Los Insociales
17:00 Berango sukaldeak - Nuevo taberna
18:00 Etxe Mobilario - Belo eta Txapi
19:00 Los Garimbas - Auf Dem Koffer

Final Four-a heldu da

Pepelus, Arlutz, A taldetik; B taldeko Fosforos eta Mikelos; Argi ibili eta Irati C taldetik eta D taldeko Zuloak eta Txikitik taldeak izan dira, orain arteko onenak. Onenak izan direlako jokatu dute Final Four-a. Taldez talde errepasso bat egin ezkerro, datu hauek azaltzen zaizkigu. Sailkatu direnen artean, gol gehien sartu duen taldea Argi Ibili izan da, 56 gol sartu ditu. Eta atzetik Fosforos taldeak jarraitzen dio, 38 golekin. Gol gutxien, berriz, Zuloak taldeak sartu ditu, 22 gol eta Mikelosek 26. Jokatu dituzten zazpi partiduetatik Fosforos eta Argi Ibili dira, sei neurketa irabazi ondoren, txapelketan zehar parti-

du gehien irabazi dituzten taldeak. Arlutz eta Mikelos, ostera, 4 partidu irabazi ondoren, sailkatu direnen artean gutxien irabazi dutenak. Esanak esan, final four-a jokatzeko egin diren bi taldeak honela daude osatuta: A taldean, Pepelus, Mikelos, Argi Ibili eta Trikiti. B taldean, Arlutz, Fosforos, Irati STS eta Zuloak. Lehen multzoan, Argi Ibili eta Trikiti faborito agertzen zaizkigun arren, Mikelos taldeak ere zeresan haundia eman dezake. B taldean, oso orekatuta daude indarrak eta, printzipioz, guztiak daukate sailkatzeko aukera. Beraz, gauzak astebukaeran argitzen joango dira.

TXOKO TABERNA

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak


Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

Masaia Terapeutikoa eta Erlajaziokoa



IOSU ARANZABAL ELORZA

Doctor Bañez, 10 Tfnoa: 79 18 18 ARRASATE



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

● Josu Aranzabal Osasuna eskuetan

Atxabaltako Galartzakoa da, baina Arrasaten bizi da. 40 urte ditu eta urte askoan basoan lan egin ondoren, azken 3 urteotan masajearen munduan dabil buru-belarri. Masaje terapeutikoa, erlajaziokoa, Rebirthing-a eta antzeko teknikak lan-tzen ditu. Irakurri eta ikastaroak eginez ikasi du dakien guztia. Oraindik ez du jende askok ezagutzen lanbide hone-tan, baina "bere herrian profeta" izan nahi luke.

— Zer da Rebirthing-a?

— Zaila da azaltzea, bai-na arnasa hartzen ikasteko teknika bat da. Arnasa oso inportantea da eta txikitatik hasi eta bizitzan zehar arnasa hartzen ahaztu egin zaigu. Sufrimendu edo edozein mo-mentu larritan arnasa moztu egiten dugu, konturatu barik, gauzak gutxiago sentitzeko; horrela gorputza gogortu egi-ten da, baina gozatzeko ere blokeatuta geratzen gara. Tek-nika honen bidez gorputza zabaldu egiten da eta blokeo horien azpian dauden emo-zioak azaltzen dira.

Une horretan behar den bezala arnasa hartzen jarraitu ezkerro, benetan erlajazio sakona lortzen da, eta emozio negatibo horiek indarra gal-tzen dute.

— Kontsultara joaten zai-

zun jendea zelan joaten da?

— Gaur egun jende ge-hiena estresatuta bizi da, eta problema txarrena horrekin ez konturatzea da. Kontsultara, normalean, minez dagoenean etortzen da jendea. Ez dago masajerako kulturarik, eta jen-deak ez daki masajeak zer efektu dituen. Denok funtzio-natzen dugu horrela. Gaizki sentitzen garenean gogora-tzen gara Jainkoarekin.

— Beraz, ideala zer izango litzateke?


— Nik edozeini esango nioke, hilean behin masaje bat har dezala, ondo dagoela pentsatu arren. Masajearen efektua ez da giharreetan, muskuluetan bakarrik. Bar-ruan ere efentua egiten du. Zirkulazio, digestio eta egoeran ere zerikusia du ma-sajeak.

— Eta masajeak ematen ikastea erraza da?

— Bai, samurra da. Zailena diagnostikoa egitea da, baina masajearen inportateena sustarra aurkitzea da, mina dagoen lekuan igurtziak egi-tea alperrik da arrazoa beste leku batean badago eta hori sarritan gertatzen da.

— Etortzen zaizkizun ara-zoak zelakoak izaten dira?

— Gehienak bizkarreko arazoak izaten dira. Kontuan hartu behar da, %90ean biz-karreko problemak emozio-



en semeak izaten direla. Gor-putza blokeatuta egoten da, emozioak ezin dira eta gorde, gorputza batu ezik, eta aga-rrotamendu horretatik etort-zen dira minak. Gorputzak eta posturak asko adierazten du. Beste aldetik, jaten duguna, hartzen dugun arnasa eta bizi ditugun emozioak, besterik ez gara. Gorputzean kalteren bat baduzu, hortik hiruetatik bat izango da erruduna, seguru.

— Masajeak min ematen duela esan ohi da.

— Ez da beharrezkoa. Masaje sakona hobea da, bai-na esperientziak erakutsi dit min muga bat ez pasatzen, hartzaileak nahi ez badu.

— Gauza guzti hauek mo-dan jarri dira azkenaldian, ezta?

— Bai, gero eta gehiago; baina ez da moda hutsa, mun-

duaren aldaketa ez da moda hutsa. Mundua aldatzen hasi-ta dago, ez da goitik aldatuko, behetik baizik, poliki-poliki susterrak aldatzen baditugu, arbolak gora irtengo du, be-netako bizitzaren konprensio-az. Hor dago klabea. Norbere burua aldatzeko asmorik ez-duenak ezin du mundua alda-tu. Mundua oso gaizki dago gaur egunean, eta hortik kontsuelo bat dator: askoz txarra-go ezin dela egon, beraz, al-daketa onerako izango da beti, eta hasita dago, igarri egiten da. Gure gizartean jende on asko dago lanean; beste bat-zuk, onak direnez gero, ez dute bidea aurkitzen haien ba-liotasuna zabaltzeko eta.

— Zer esango zenioke se-kula masaje bat hartu ez due-nari?

— Aproba egiteko. Apro-barik egiten ez duena inoren esanarekin ibiltzen da. Ho-rrela ezin daiteke ezer jakin, behar bezala behintzat.

Orain be, sorpresa atsegi-nak badira munduan zehar.

● Mundua aldatzen hasita dago eta ez da goitik aldatuko, behetik baizik.

Hirugarren mundua: Laguntza eskaintzea ala kendutakoa itzultzea?

Itxaro Zubillaga

Duela hiru urte, Indiako Gujerat Estatuaren hego aldean dagoen Unai izeneko lurraldeari laguntzeko proiektua jarri zen abian. Surat eta Valsad distritoen artean dago, 16 herrialdez osatuta, Unai lurraldea. Proiektua Inaxio Galdosek, bertan bizi den jesuita atxabaltarrak bultzatu eta Arrasate zein Atxabaltan Hirugarren Munduaren alde lanean dabiltzan bi elkarrekin laguntzaz gauzatu izan da.

Unai lurraldeak 16 herri hartzen ditu bere baitan, gutxira 16.000 lagun bizi dira bertan. Jende ez-jakina eta

behartsua da oso eta langabezia ere izugarria da. Arazo hauetaz gain, lurralde horretan jasotzen zen uzta oso urria zen, lurrak desorekatu eta aldapatsuak, ura ere ezin gorderik zebiltzan putzurik ez zeukatelako eta gainera, ume txikienezko ez zegoen irakaslegorik. Gauza gehiegi ezer egin barik egoteko. Arrasate eta Atxabaltako 3. Munduaren aldeko taldeek, Inaxiok azaldutako egoera entzun zutenean eta berarekin harreman zuzena izatea posible zela ikusita, ez zuten bi bider pentsatu eta proiektuari heldu zioten. Esku artean zuten proiektua lau urteko epean bete behar zen. Lau urte horietan 16 milioi lortu beharra zegoen, 350 lur hektarea berdintzeko, 11 putzu ateratzeko eta 16

irakasleri ordaintzeko. Hiru urte eskas bete direnean ia gutzia egina dagoela esateko moduan gaude. 13 milioi lortu dira dagoeneko, putzuak erdi bukatuta daude, berdindu beharreko lur hektareak lortzeko apur bat falta da eta 16 irakasle lanean daude dagoeneko. Honez gain, bonba eta hoditeria ere erosi zaizkie, proiektuan sartuta ez zeudenarren. Pozik dago, beraz, proiektuaren alde borandate osoz lanean dabilen jendea eta esan digutenez, gauza garrantzitsuena hango jendearen moralak jasotzea izan da, "gauzak egiteko kapaz direla sinestarazi diegu, apoiatuta daudela, gu laguntzeko gertu gaudela eta ezin direla ezer egin barik egon. Helburu materialaz aparte beharbada lor-

tu dugun gauza onena horixe izan da".

DIRULAGUNTZAK

Orain arte lortu diren 13 milioi horiek, Arrasate eta Atxabaltako Udalek, Ikerlanek eta herritarrek eman dutenari esker jaso izan dira. Udalek eta Ikerlan enpresak emandako dirua % 38a da, gainontzeko % 62a herriarengandik dator. Datu moduan, hemengo 1.000 Pta Afrika edo Indian 210 mila bihurtzen direla esan behar. Adibidez, irakasle batek hilero 1.250 Ptako soldata dauka, eskolako materiala hilero 250 Pta kostatzen da, beraz, kontuak aterra ezkerro, guk emandako 1.500 Pta erekin hilabetean zehar 60 neska-mutilentzat eskola izango dute.



Inaxio Galdos atxabaltarra, Unai lurraldean lan egiten duen misiolaria da.



Gehienek artisautzan eta nekazaritzan egiten dute lan.

Arrasateko Udalak, aurtengo aurrekontutik, Hirugarren Munduari laguntzeko, onartutako lau proiektuak.

- 1) Guatemalako Quiche eskualdean 545 erre-fuxiatu indigenen familiak berkokatzeko...280.000Pta
- 2) El salvadorren etxebizitza batzuk eraikitzeko...440.000Pta
- 3) Indiako adivasi etniako nekazari batzuen garapenean laguntzeko plana...800.000Pta
- 4) serbiarrek bosnian setiatutako Gorazde hiriri laguntzeko SOS Balkanesen plana...480.000 Pta. Guztira 2 milioi Pta ko diru partida.

NOIZ ARTE

Unai proiektuan 600 pertsona baino gehiago dabilta lanean eta bi edo hiru urte barru bukatuta egotea espero da. Horrela izanik, Harreman taldekoek beste lurralde behartsuei laguntzen jarraitzeko asmoa daukate, nahiz eta oraindik proiektu zehatzik eskuartean ez izan. Izan ere, Euskadin behartsu izatea eta esaterako Indian izatea, oso desberdina da, "hemen oinarritzko beharrak beteta daukagu, denok daukagu zeozer jateko eta ez da inor gosez hiltzen, eskolara joateko aukera ere guztiok daukagu, lurralde horietan, berriz, behartsu izateak gosez hiltzea esan nahi du, jaiotzen diren hiru umetatik bat hil egiten da, hil egiten da ez daukalako azukre, ura edo gatza moduko gauza sinplerik, ez duelako 25 duro balio duen botika erosteko dirurik. Hango sufrimendua ez ebitatzea, gu errudunak izan garela kontutan hartzen bada, ulertezina da".

Hirugarren Munduaren alde jardun duten taldeek ez dute hango eta hemengo pobrezia bereizten. 3. Munduari laguntzea eta ingurukoari ez

laguntzea ulertezina dela diote. Beharbada alderantziz gerta liteke, Hirugarren Mundua gertutik ezagutzen ez dugulako baina dena dela, laguntzeko jarrera duenak ez du mugarik. Baina hemen pobreei zuzendutako instituzio dexente dago, 3. munduaren alde lanean dabilen taldearen esanetan eta Hirugarren Mundua izenaz ezagutzen dugun lurraldeetan, berriz, ez dago behar adina erakunde lurralde horietan bildurik dagoen jendetza guztiari laguntza bideratzeko. Era berean, "ezin dugu ahaztu, herrialde aurreratuok Hirugarren Munduko herrialdeetan egindako esplotazioaren bitartez lapurtu diegun guztia". Lapurketa horren ondorioz, gaur egun lehen mundu honetan bizi garenek, lehengaiak eta beste zenbait produktu behar baino merkeago erosten ditugu. "Herri horiek jasaten duten sufrimendua eta gure lapurretaren kontzientzia jendeari ulertaraztea falta zaigu. Horregatik, Harreman taldean, haiei ostu dieguna emateko obligazio morala besterik ez dugula ikustarazteko gabiltza lanean". Beraz Arrasateko

Harreman taldea, proiektu konkretu bati laguntzen dabil: "mota honetako laguntza ematean onuradunei zuzenean ezagutzen diegu eta laguntza bere lekura heldu dela ziurta dezakegu".

O'7AREN KANPAINA

Bestalde, Hirugarren Munduaren alde jardunean dabilten taldeek, Arrasateko Harreman taldeak bezalaxe, aurrekontuen %0'7a garapen proiektuetara bideratzeko kanpaia hasi dute. O'7a Nazio Batuek 1972. urtean Hirugarren Munduari laguntzeko onartutako diru kopurua da. Teorian instituzio publiko guztiek, euren aurrekontuetatik portzentaia hori Hirugarren Mundura bideratu behar ko lukete. Baina, jakina, hori teoria hutsa da, praktikan, gehienetan ez da onartutakoa errespetatzen. Arrasateko Harreman taldeak, O'7aren kanpaina barruan, kaleetan zehar sinadurak batu ditu, eskaera ofiziala egin du eta alderdi politikoen eskutitzak, Madrilgo gobernura bidali ditu. Hau guztia egin arren, ez dakite zer eragin izango duen eta ezta O'7a lortuko den ere.

U

nai lurraldeko biztanleak, miseriak eta beharrak dakarren ezintasuna egunetik egunera sufritzen egon arren, jende prestua, alai eta oso abegikorra dira.



Lehen mailara igoteko aukera duten jokalariek, azken ahalegina egin beharko dute.

Larunbatean, arratsaldeko 6'30etan, guztiok Musakolara

Txus Brizuelaren jokalariek, domekan lortu zuten garaipenarekin, ekainaren 12an Pontevedran jokatuko diren lehen mailako iguera faseko postua, ia ziurtaturik dute. Igandean, Atletiko S. Sebastian taldearen aurka jokatuako neurketa, ikusgarria bezain bizia izan zen. Aurrez aurre, lehen mailara igoteko faborito diren bi talde, eta harmailetan 100 arrasatear baino gehiago, euren taldeari animoak emanaz. Partiduan markagailua azken minuturarte Atletikoren alde egon zen eta horrela lehen zatia bukatu zenean, markagailuak 36-30 emaitza erakusten zuen. Bigarren zatiko lehen minutuak, Bri-

zuelak zuzentzen duen taldearentzat ez ziren hobekak izan. Gure jokalariek, aurkakoen erritmoa apurtzeko egin zituzten saiakera guztiek, ez zuten fruiturik ekarri eta donostiarren jaurtiketek, arrasatekoenak ez bezala, markagailura igotzen zuten. Apurka apurka, arrasatearrek aldea murriztea lortu zuten, 18 segundu falta zirenean 72-71 emaitzaz, neurketa nahiko pareketuta jarri zen eta azken segunduan Saenz de Viterik lortutako saskiratze bati esker 72 - 73 emaitzaz bukatu zen neurketa.

Nolanahi ere, oraindik saskibaloitako taldeak erronka garrantzitsua du Askatuak

taldearen kontra. Neurketa larunbatean, arratsaldeko 6'30etan eta Musakolako kiroldegian jokatu da eta ez da sarrerarik ordaindu behar. Horrela, bada, Arrasateko jokalariei, eman diezaiokegun gauza bakarra gure berotasuna eta animoak direnez, guztion presentzia ezinbestekoa da, harmaiak gainezka egon daitezten. Gainera, saskibaloitako arduradunek, hainbat ekintza antolatu dituzte arrasaterako historikoa izan daitekeen egun horretarako, besteak beste, dultzaineroak, animadorak, Mon dragoia eta beste zenbait opari eta sorpresa prestatu dituzte inguratuko den jendearentzat.

LABURRAK

Eskubaloia

Arrasate Kirolak eskubaloitako taldeak, galdu egin zuen Bergara taldearen kontra (22-17). Dena dela, azken emaitza hori ez da partiduan gertatutakoaren isladarik. Atsedendira (10 - 15) aldeko emaitzaz joan ziren arrasatearrek eta esan beharra dago ia partidua osoan zehar arrasatearrek markagailuan aurretik joan zirela. Baina azken 10 minutuetan gauzak okertu eta Arrasateko jokalariek ate aurrean izan zituzten zehazgabetasunak batetik, eta epailea ere fin ibili ez zelako bestetik, bergararek buelta eman zituen partiduari eta garaipena lortu. Datorren zapatuan Gure Auzune taldearen kontra jokatu dute Gasteizen. Neurketa arratsaldeko 7'30etan izango da.

Atletismoa

Arrasate atletiko taldeak, Durangon egin diren 2. mailako txapelketan lehen postua lortu ondoren, lehen mailara igoko du, datorren denboraldian. Arrasateko atletentzat oso arrakastatsua izan zen txapelketa eta are gehiago 4x 400 metroan Anguas, Martin, Canales eta Arnaizek, 3'26"14 denbora eginez «errekorra» lortu zutela kontutan hartzen badugu. Aurreko errekorra Ordizian, Martin, Gay, Canales eta Saavedrak lortu zuten, 3'27"70 denboraz.

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

RUTH GATZAGA

Oiarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

PENALTIAK

● **Mondra taldeak, galdu egin zuen Gernikaren kontra jokatutako neurketa: 2 eta 0 izan zen azken emaitza. Partidua joku aldetik oso ona ez izan arren, bizitasun berezia izan zuen. Dena dela, partiduko protagonista nagusia Garikoitz Agiriano mondrako atezaina bihurtu zitzaigun, domekakoa bere debuta izan zen 3. mailan eta debut horretan penalti bat gelditu zuen. Denboraldi osoa jokatu barik egon ondoren penalti bat gelditzea, ez da ez nolana hiko gauza. Bestalde, datorren domekan Atxabalpen, Mondrak denboraldiko azken neurketa jokatuko du Soduperen kontra, arratsaldeko 5etan.**

Berriro K-2ra

Nortzuk: Alberto Iñurategi, 25 urte, Felix Iñurategi, 26 urte, Juan Oiarzabal, 37 urte, Enrique De Pablo, 42 urte.

Noiz: Kike De Pablo eta Felix Iñurategi, maiatzaren 8an eta Alberto Iñurategi eta Juan Oiarzabal, maiatzaren 11n.

Zenbat denbora: maiatzaren 11tik, uztailaren 29a arte, bi hilabete.

Noiz tontorra: Ekainaren lehen hamabostaldian, San Pedro inguruan, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Beheko kanpamendura maiatzaren 25 inguruan iritsiko dira eta 25 egun beranduago tontorra egitea espero dute.

Irildidea: 1986an Tomo Cesenek zabaldu


tako bidetik igotzeko asmoa dute. Gero, 8.000 metro inguruan, Abruzzos edo ohizko bidea hartuko dute.

Espedizioaren ezaugarriak: Espedizio arina da; oxigenorik eta altuerako sherparik ez dute erabiliko

Asmoak: Lehenik eta behin, etika alpinoari jarraitu eta gauza jator bat egitea da euren asmoa. Jakina, tontorra da helburua, baina itsutu gabe.

Itzulera: Uztailak 29
Aurrekontua: 8 miloi t'ardi

Laguntzaileak: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioak, Vital Kutxa, EITB, Kutxa, Euskal mendizale federakuntza eta



Espedizioaren logotipoa Astore.

Datu batzuk: Bi euskal mendizalek bakarrik lortu dute K-2 ren tontorrera heltzea: Mary Abrego eta Josema Casimiro nafarrek.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Gernika 2- Mondra 0.
Emakumezkoak (kopa): Aloña mendi 0- Mondra 6
2. regionala (kopa): Mondra 2- Mutriku 1
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 11- Irundarra 1
Jub., 2. maila: Gazteak 1- Arrasate 1
Kadeteak, 1. maila: Arrasate1- Aitzgorri 4
Kadeteak, 2. maila: Amaro 6- Arrasate 0
Haurrak: Hamaika bat 0 - Arrasate 2
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Sodupe. Atxabalpen, igan 5etan
2. regionala (kopa): Urki - Mondra. Domekan, 12etan.
Emakumeak (kopa): Mondra - Eibartarrak. Zapatua, 5etan
Jub. Ohorezko Liga: Santotomas Lizeoa -

Mondra. Domekan. 12'15etan
Jub, 2. maila: Atsedena
Kadeteak, 1. maila: Elgoibar - Mondra. Zapatua, 3'45etan
Kadeteak, 2. maila: Mondra - Tesa. Domeka, 11'30etan.
Haurrak: Mondra - Soraluze. Domeka, 10etan

Saskibaloia

2. maila igoera fasea: Atletico S.SS 72- Arrasate 73
Hurrengoak:
2. maila, igoera fasea: Arrasate - Askatuak. Musakola, 6'30etan.
Sub 23: Arrasate - Politecnico. Zapatua, 4etan
Jub. Emakumeak: Patterncam - Amigos del Baloncesto. zapatuan, 4'30etan.

Kadete neskek: Almen - Arrasate B. Eskoriatza. Zapatua, 12etan

Eskubaloia

Igoera fasea: Bergara 22 - Arrasate kirolak 17
Hurrengoak:
Igoera fasea: Gure auzune - Arrasate Kirolak. Zapatua. Gasteizen, 7'30etan.

Pilota


Herri - artekoa, Arrasate - Antzuola (3 - 0)
Infantilak (18 - 2), Jubenilak (22 - 15), Nagusiak (22 - 9)
Hurrengoak:
Herri artekoa, Antzuola - Arrasate. Zapatua 5etan, Antzuolan.
Deba Arroa txapelketa: Aretxabaleta - Arrasate. Atxabaltan, 7etan.

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

MAIANTZAZA DANTZAN



DANTZA GARAIKIDEKO XI
HARDUNALDIAK

PIRILAK: 30, LARUNBATA,
MAIA ANTZOKIAN
AUEKO 10.30an

M A Y O
M A I A T Z A

IEZ Y DIEZ DANZA: HAZ DE LUZ
ARRERA: 700 PTA.
AZTE TXARTELAREKIN: 500 PTA




Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Turismo Departamentua



Arrasateko Udala

Z E R N A H I A G O ?

Gonzalo Etxebarria**“Etxe” dekorazio dendakoa**


- **Noiztik daukazu bibotea?** Soldaduzkara joan nintzenetik.
- **Ardauaz aditua zara?** Ez, baina ardo onak edatea gustatzen zait.
- **Zelako liburuak irakurtzen dituzu?** Dekorazio eta arkitekturari buruzkoak.
- **Entzun zenuen azken kontzertua?** Ez dut gogoratzen baina Bilbon ikasten ari nintzela izan zen.
- **Etxeko lanetan laguntzen duzu?** Ez dut ohitura-rik, baina behar izanez gero, ez dut arazorik izaten.
- **Irabazi duzu sekula sariren bat loterian?** Peñen arteko kinieletan bai.
- **Zenbat korbata dituzu armairuan?** Bost bat.
- **Erropa marka bat?** Lacoste.
- **Zerk gorritu arazten zaitu?** Oso lotsatia naiz eta neskek gorritu arazten naute.
- **Gustoko duzun abesti bat?** Maria Dolores Praderaren “Las barandillas del puente”.
- **Zure bizitzako momenturik pozgarriena?** Nire semea jaio zenean.
- **Eta tristeena?** Nire aita hil zenean.
- **Zein desodorante marka erabiltzen duzu?** Yves Saint Laurent-en “Kouros”.
- **Zer iritzi duzu “Reality Show” etaz?** Lotsagarriak dira, guztiak kendu beharko lirateke.
- **Politikan esperantzarik baduzu?** Geroz eta gutxiago.
- **Zergatik?** Gaur egun politikoei ezer ezin diegu sinestu.
- **Museozalea zara?** Bai.
- **Asteko egunik txarrenea?** Denak dira berdinak.
- **Onak edo txarrak?** Onak.
- **Idolorik?** Gaudí arkitekto katalana.
- **Nori egingo zenioke elkarrizketa bat?** Felipe Gonzalez-i.
- **Zergatik?** Kontuak eskatzeko.

BERTSOAK**Ustelkeria**

Boterearen bideak beti izaten dira okerrak orain dirudi modan daudela ustelkeriaren gerrak PSOEk Rubio, PPk Naseiro PNVk tragaperrak... erdiak ere ez dakizkigu “elkarlanari” eskerrak.

Gure herriak beti izan du paradojatik zertxobait denok dakigu ustelkerian sartuta dagola zenbait bototan eurek irabaztea harrigarri egiten zait politikoa eta mizpirak gauza bera dira nonbait.

JON SARASUA



Dekorazioa

obrak

eta

proiektuak

Ferrerias, 17
Tfnoa: 79 03 17
ARRASATE

“Arrasate” Gaztelua aurkitu da

Santa Barbaran aurkitutako gazteluak, “Arrasate” izena izan zezakeela uste du Mertxe Urteaga arkeologoak. XI. edo XII. mendekoa omen da eta ikerketa lanak bukatu ez diren arren, sorpresaz beteriko gaztelua daukagula esan dezakegu arrasatearrok.

Santa Barbara parkean gaztelu bat zegoela zioen hipotesia, guztiz konfirmatuta geratu da aste honetan. Aurkikuntza oso garrantzitsua da eta Arkeolaneko arkeologoei zor diegu. Aste bete zeramatzaten lanean, duela bi urte aurkitutako bi dorreen oinen arrastoen jarraipena aurkitzeko asmoz: lanak bere fruitua eman zuen azkenean eta falta ziren beste bi dorreen oinak agertu ziren lur azpian. Mertxe Urteaga eta Maria del Mar Lopez Colon-en zuzendaritzapean, lau langile aritu dira eskabazio lanetan eta harrituta geratu dira aurkikuntzarekin.

Egia esan, Garibay historiagile famatuak, esaten

zuen gaztelua bazela baina beste historiagile batzuk, kondaira bat besterik ez zela esaten zuten, orainarte ez da ezer garbirik atera ahal izan. Duela zortzi urte hasi ziren ikerketa lanak, Santa Barbara mendixkako Goiko Baluk garai batean leku estrategikoa izan behar zuela pentsatuz. Dena dela, parkeko obrak egiten hasi zirenean agertu ziren lehenengo bi dorreen oinak.

ARAZOAK ETA SORPRESAK

Dorreen oinak aurkitu ondoren, horietako bat abiapuntutzat hartu eta dorreak lotzen zituzten hormak bilatzeari ekin zioten. Arazo batekin egin zuten topo: hormak ez ziren uste zen lekuan agertzen. Ez zioten arazo honi inolako azalpenik aurkitzen. Azkenean, apiapuntutzat hartutako dorrea lau dorreetatik altuena zela pentsatu zuten, beraz, hormak lur azala baino beherago egon behar zutela konturatu ziren. Lehen hormarekin egin zuten topo: Dorre bat, beraz, besteak baino altuera handiagoan zegoen



“Arkeolaneko” lau arkeologo ari dira lanean

kokatuta eta 10 metrotako altuera izango zuela pentsatzen dute. Gainontzeko dorreen egoera hobea ere ezalitzen du horrek.

Metroa eta 80 zm.tako lodiera dute hormek eta Mertxe Urteagaren hipotesien arabera, gazteluko dorreek, 6 metrotako altuera izango zuten gutxienez.

XI. EDO XII. MENDEKO GAZTELUA

Oraindik ezin da gazteluaren eraikuntza-data finkatu, baina, erdi aroko gaztelua izan behar zuela pentsarazten digu hainbat faktorek: 1260. urteko txanpon bat aurkitu da eskabazioetan

eta Gaztelako erreinuaren garaikoa dela ziurtatu du Mertxe Urteagak, Gaztelako armarrria baitu. Urte horren inguruan, Gaztelako Alfontso X. a “Jakintsuak”, Arrasateko “Carta Puebla” sortu zuen, baina Arrasate Gaztelako erreinuaren menpe egon baino lehen, Nafarroako erreinuaren menpe zegoela badakigu. Data hauen inguruko dokumenturik ez dagoenez, gaztelua sortu zuena Nafarroako Sancho Abarka izan zela uste du Arkeolaneko adituak; horregatik, XI. edo XII. mendekoa behar du izan gazteluak. Dena dela, uste horren inguruko duda bat geratzen da aidean: Gazteluaren oina, “Cooper” izeneko estiloari egokitzen zaio eta orainarte aurkitu diren era ho-



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxeba Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA


netako gaztelu-oin guztiak, XIV. mendetik aurrerakoak dira. Zein da azalpena?

KERAMIKA AZTARNAK

Aurkitu diren aztarnak, aurki daitezkeen %80a

dira dio Urteagak. Orain narte animalien hezurak eta keramika zatiak agertu dira, baita aipatutako txanpona ere. Animalien hezurak ez omen dira garrantzi handikoak: katu baten eta ardi

baten aho-hezurak. Keramika zatiak, ordea, "Mondragon" erakoak dira. 1988an, Batzokiaren orubean, Goiko Balun agertutako keramika era bera agertu zen eta zati guztiak homogeneoak zirenez, "Mondragon" keramika-era izena ematea erabaki zuen Arkeolanek. XV. mendeko keramika da, "torneta" mekanismoaz egindakoa. Keramika zatiak, sukaldean erabiltzen ziren tresnenak dira. Araba aldean ere aurkitu dira era honetako aztarnak, horregatik, ezin esan daiteke keramika hau Arrasaten bakarrik egiten zenik, Arabatik ekarria izan daiteke eta.



Gazteluaren funtzioa eta "Pies Polvorosos" deituak

Mertxe Urteagak dienez, espazio edo leku baten kolonizazioa adierazten zuen elementu edo adierazgarria da gaztelua. XI. eta XII. mendean, sekulako hazkunde gertatu zen demografikoki Europa osoan eta nekazaritzan ere aurrerapen handiak izan ziren. Jendeak, lurraldeak kolonizatzeari ekin zion eta behin lurralde bat bere egin ondoren, hori frogatzen zuen eraikuntza egiten zuten: gaztelua. Dinamika komertziala ere sortu zen eta merkatariek, "Pies Polvorosos" izenez ezagunak, alde batetik bestera mugitzen ziren. Gaua igarotzeko lekuri ez zuten, fortifikazioetan geratzen ziren eta horrela, merkataritzaren eraginez, herriak sortzen ziren gazteluaren inguruan.

Mertxe Urteagak izena jarri dio gazteluari: "Arrasate". Bere ustez, hori zen gazteluaren benetako izena. Arrazoi logiko batek eraman du erabaki horretara: Alfonso X.a "Jakintsuak" Arrasateko "Carta Puebla" sortu zuenean, honela idatzi zuen: "Fundo la villa de Arrasate". Horrek, herria sortu baino lehen gaztelua zegoela esan nahi du, beraz, gazteluaren izena, Arrasate izan behar zuen eta Arrasate izenaren esanahia, "harresi-ate". Gazteluaren inguruan herria antolatuz zenean, gazteluak bere funtzioa galdu egin zuen, herriak berak defendatzen baitzuen espazioa. 1457. urtean, Enrike IV.ak, gaztelua beheara botatzea erabaki zuen baina horren arrazoiak ez daude oso argi.

"Maiatza Dantzan" Arrasaten

Izenburuak dioen bezala, maiatza osoan zehar eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Diputazioaren laguntzaz antolatuta, Europako dantza garaikide talde onenatarikoak izango dira dantzan hainbat herri gipuzkoarretan zehar, Arrasate barne. Dantza Garaikideko 11. ihardunaldiak dira hauek eta Donostia, Azkoitia, Irun eta Lasartez gain, aurten eta lehenengo aldiz, topaketa garrantzitsu honetako bi talde Arrasatetik igaroko dira: Madrilako "Diez & Diez Danza" eta Arteszenako dantza taldea.


"Diez & Diez Danza" dantza konpainia apirilaren 30ean izango da Amaia Antzokian gaueko 10.30etan "Haz de Luz" koreografiarekin. Konpainia hau, Pedro Berdäyesek eta Mónica Rundek sortu zuten 1989an eta gaur egun, eurak dira konpainiako zuzendari artistikoak. Konpainia gaztea izanda ere, lau produkzio estreinatu dituzte dagoeneko eta "Haz de Luz" da laugarrena (1993koa). 1990ean "Madrileko III. Koreografi Lehiaketa" irabazi zuten; Etorkizun handiena duen dantza garaikideko dantza talde madrildarra dela esan du prentsak.

Dudarik gabe, espektakulu ahaztezina eskeiniko dute.

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 08 15

FANCY
Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



skola Politeknikoko lehen promozioa izateak batzen ditu argazkiko hauek, baina horretaz aparte, adiskidetasun handi batek elkartzen ditu. Oraindik ere, urtero batzen dira, iraileko hirugarren zatatuan, meza entzun eta Torrepen elkarrekin bazkaltzeko.

Erretratua atera zuten egunean, 1950 edo 51n, Kanpazarren egin zuten urteko bazkaria, ikasle eta maixuek elkarrekin. Egun hartan, autoak eduki arren, oinez etorri ziren kalera.

Goiko iladan, ezkerretik, **Julio Gallastegi, Lorenzo Jimenez, Luis Larreategi, Gregorio Uranga, Alejandro Arauzo, Txomin Agirreurreta, Juan Gualberto Gorosabel, On Antonio Balerdi** (maixua),

paten zirela. Kera-
nita kalak...
ragon" er...
lortzen. Batzokimen or-
bean, Goiko Balun ager-
lako Keramikarekin...
guzen eta xuti guz...
koneoak zirenez, "Monda-
gon", keramika era izena
amantza erabaki zuten. Arze-
lank. XV. mendeko kera-
nikada "lomen" mekaniz-
azioz erabiltzen. Keramika



Eskola Politeknikoko lehen promozioa eta irakasleak.

On Prudencio Osinaga (maixua eta Eskolako Idazkaria), **Joseba Arregi, Juan Egidazu, On Jose Maria Arizmendiarieta, Imanol Zubizarreta** eta **Jose Lasa** (maixua).

Makurtuta, **Luis Garmendia, Sebastian Uribe-salgo, Benito Barandiaran, Maximo Uribe-salgo, Teodoro Zubizarreta, Ja-**

bier Martinez (maixua), **Martin Gastañaga, Dama-so Azkoaga** (maixua) eta **Nikasio Garai**. Erretratuan bi lagun falta dira: **Angel Garitano** eta **Pako Arriaran**.

Eskurtsioak egiten ere bazekiten, San Pankrazio egunean Arratera, kurtso amaieran Ondarru eta Saturrarara (bidean Markinan On Jose

Mariaren etxean sartu-irtena eginez. Oso oroitzapen onak dituzte eskolako sasoiak: adiskidetasun handia, maixu bikainak, eta preparazioa ere oso ona. Goizez lan egiten zuten, arratsaldezkolara, eta hasierak zirenez, Biteriko eskolaren egoitzan instalazioak egiten ere eurak ibili zirela esaten dute: "los del mono azul" deitzen zieten.

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE



Eta zuk ze inbiozu datorren urtien?



Nik, oso garbi daukat: San Frantzisko Xabier Ikastolara fango naz REM ikasten. Gainera, Ferrixalekuen, eskola berri-berrixe preperetan dabitz, tailer, mediateka, jangela eta guzti.



Jo, baina ni euskeran ez nabil oso ondo...



Trankil, denondako dauz aukerak!



Eta zu zela enteratu zara honeaz?



Niri S. F. X. Ikastolako irakasliek esplikatu dustie; fan eta eurekin berba egin, mutil!



IZENEMATE EPEA:
Maiatzaren 4tik 18ra
4etatik 6etara
Tfnoak: 79 41 22 - 79 26 40
ETORRI
GAZTELUONDORA!!

SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

• ESAERA ZAHARRA •

*San Markoseko
astea atzekoa
baino aurrekoa
hobea*

• JEROGLIFIKOA •



Non dago eraikita hotela?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10			11			
12			13			
14				15		
16		17	18		19	
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ansoategi, sukaldarien irakasle. 8. Beirazko ontzien multzoa. 10. Europako Diru Sistema. 11. Biguna eta leuna. 12. Hamar aurpegi dituen poliedroa. 14. Iraunkortasunik ez duena. 15. (Ald.) Italoako telebista katea. 16. Infusio mota. 17. Hortzak finkatzen ditu. 19. Litia. 20. Nafarroako udalerria.

Bertikalak 1. Men egin, akatatu. 2. Behintzat. 3. Edozein gauza lau eta zirkularra. 4. Itsasoan ugari. 5. Arau. 6. Itxura. 7. Gehiengo. 9. (Ald.) Estu, hertsu. 13. (Ald.) Zerbaiten behealdea. 18. Estatu mailako alderdi politikoa.

• HOROSKOPOA •

Aries Asteburu erromantikoa izango duzu oraingoan. A ze aukera neskak biguntzeko!

Taurus Lotsarik ez duzun arren, jakin egin behar da gauzak momentu egokietan esaten.

Gemini Nabari da zapatak amak garbitzen dizkizula.

Cancer Nagikeria txit karga astuna da mundu honetan. Ez al zenekien, bada?

Leo Pertsona bikaina izango zinateke jatorrago bazina.

Virgo Espabilatzen ez bazara, uste baino lehen helduko zaizu zahartzaroa.

Libra Ez duzu ezer oporretaz aparte, pentsatzeko?

Scorpio Aste honetan ez duzu ezer onik izango.

Sagitaris Esaten duzunari ez dio inortxok ere kasurik egingo.

Capricorn Oso baikorra izatea ez da askotan batere ona izaten.

Aquarius "Kalabazak" jasotzen jarraitu beharko duzun arren, neskekiko harremana hobetuko duzu.

Piscis Ez inori animorik eman, zorte txarra baino ez baituzu ematen.

LORAMENDI KIROLAK



AEROBIC-A



TENISA



BASKET-A



AISIALDIA



FUTBOLA


**KIROL BAKOITZERAKO
OINETAKO BEREZIAK**



FOOTING-A

Zatoz gure aukera ezagutzera!

• NIKOLAS URIBARRENEN GOMENDIOA •



Turismoa egiteko era berri bat gomendatu nahi digu Nikolasek: nekazaturismoa. "Turismoa egin eta Euskal Herria ezagutzeko beste era bat da; etxeak oso ondo egoten dira, zerbitzu ona eta jende jatorra". Batez ere gazteentzako moduko turismo-era dela iruditzen zaio, merkea delako, oso ondo jaten da eta ekintza asko egin daitezke. "Kaletarrentzat, baserriko bizimodua hurbiletik ezagutu nahi dutenentzat ere oso egokia da", batez ere antigualeko erara jarrita daude. Denporada bajuan joatea gomendatzen du, "maiatzean edo San Juanetan, adibidez".

• PROGRAMAZIOA •

**1 Igandea**

20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol

2 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
"Kukaratxa Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: "2001: Espazioko Odissea"

3 Asteartea

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"2001: Espazioko Odissea" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Rio Bravo"

4 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Rio Bravo" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan
22.00etan
Dokumentala: "Ikusmena: Nola antolatzen da trafikoa"

5 Osteguna

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Pareak Jokuan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Juan San Martin: Arartekoa
22.00etan
Euskal filma: "Behiak"

6 Ostirala

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
"Behiak" (errep.)
19.15etan
Kukaratxa Motel
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren filma: "Arturo Erregea"

• KOMIKIA •



• SOLUZIOAK •

**FELIPE
MADINA**
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

VE ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAL, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

GURUTZEGRAMA
Horizontalak 1, Oñduñ, 8, Beñena.
10, EDS, 11, Guri, 12, Deñadro, 14,
Irol, 15, RAI, 16, Te, 17, Oñ, 19, LI,
20, Unizue.
Bertikalak 1, Obeditu, 2, Bederen,
3, Disko, 4, Ur, 5, Lege, 6, Irudi, 7,
Maioria, 9, Larr, 13, Zola, UI.
Urkiolan
JEROLIFIKOA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan.** 90m²takoa. 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta garbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara
- **75 m²tako etxebizitza salgai.** Maala kalean, 23 zka. Tfnoa: 79 34 54.
- **Pisua saltzen da.** Santa Marina, 32. Sukaldea, egongela, 4 logela, bi bainu, 3 terraza, igogailua, berogailu zentrala. Tfnoak: 77 06 72 - 79 65 28.
- **Etxebizitza salgai Santo Domingon (Errioxa).** 85 m² berdegunedun urbanizazioan. igerilekua, frontoia, tenis zelaia. Erdialdean. Jantzia. Prezioa: 9.750.000 PTA. Tfnoa: 79 64 50.
- **Pisua alokatu nahi dugu** Arrasaten. Tfnoa: 80 12 97. (Arratsaldez deitu) Oier.
- **Logela eskaintzen da** bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garaje itxia** alokagai Laubideko urbanizazioan. Tfnoa: 79 19 64. Arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Pisua alokatu nahi baduzu,** neuk badaukat bat. Dei egin 79 80 44 tfnora. Salva.
- **Pisua salgai.** 4 logela, egongela, sukaldea, 2 komuna, 2 terraza, garajea eta berogailua. Tfnoa: 77 07 91.
- **Erguinen nesken pisu batean** oso gela merkea alokatzen da. Tfnoa: 77 06 25.
- **Torreviejan apartamendua** alokatzen da, bi logela eta igerilekuarekin. Maiatza, ekaina edo uztaileko. Tfnoa: 79 64 50.
- **Hiru pertsona behar dira** pisu eder bat osatzeko. Banakako logelen aukera. Tfnoa: 65 52 98.

• **Garajea salgai** daukat. Iturriotz kalean, 27 znbk.an. Tfnoa: 79 94 40.

• **Garajea salgai Roneon.** Tfnoa: 79 90 50.

Lana

• **Emakumea eskaintzen da** garbiketarako egiteko, etxeak, bulegoak...Interesatuak dei egin dezala 79 63 27 tfnora. Natividad Uriarte.

• **Inglaterrara au-pair** bezala joateko konfidantzazko famili bat ezagutzen dut. Tfnoa: 79 24 59. Kris.

• **Masajeak etxean** emateko prest. Estheticienne eta kirol-masajista naiz. Tfnoa: 79 72 29. (Mari Karmen).

• **Esperientziadun neska** haurrak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.

• **Neska bat etxeko lanak** edo bulegoak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 49 05. Edume.

• **Emakumea garbiketa** lanetarako, edo haur eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73

• **Masajista tituloduna** masaia terapeutikoak, kirol masaiak, erlajazio masaia eta masaia metamorfikoak ematen ditu. Tfnoa: 945 - 27 78 44.

• **30 urteko neska** pertsona nagusiak, gaisoak edo elbarrituak zaintzeko prest. Euskara ulertzen dut. Klinikako laguntzaile ikasketak eginda ditut.. Tfnoa: 71 40 95. M^o Eugenia.

• **Enpresa lizentziatuak** administrari gisa lan egingo luke edo kontabilitate-matematika edo finantza-matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.

• **DBase IV programatzen** dakien pertsona baten laguntza behar dut. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.

Salerosketak

• **Salgai: Amstrad 2086 PC** ordenagailua. Barruko 3 1/2 tako disketera, kanpoko 5 1/4 tako disketera, VGA pantaila, xagua, Acad diskoak, D Base diskoak, Lotus diskoak, jokuak. Prezioa: 30.000 PTA. Interesatuok dei egin 79 56 83 zbkira eta Eduardoz galdetu.

• **Argazki kamara** saltzen da, automatikoa, 2 objetiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuok dei egin 79 49 05. Edume.

• **Kanping denda familiarra** saltzen dut. Berriberria da. Tfnoa: 79 45 39. Jose Felix.

• **Eskiatzeko buzoa.** 42-44 tailakoa. Berria. Diseinu modernokoa. Prezioa: 10.000 Pta Tfnoa: 79 64 50.

• **2 Oheko logela klasikoa** salgai. Egoera onean. Tfnoa: 78 19 93. Goizeko 11.30etatik aurrera.

• **YAMAHA FZR-600** motorra salgai. Oso egoera onean. Tfnoa: 79 91 59. Xabier. Gaeuz.

Denetarik

• **Neskatilaren batek** poltsa bat ahaztuta utzi zuen Gazte Bulegoan, barruan bainujantzia (loraduna), bainu kapela, e.a. dituenak.

• **Borda edo lur zati bat** bilatzen ari naiz. Leintz bailara eta inguruetan. Tfnoa: 71 47 10.

Aste Gazte

Bekak

• **Kirol materialak** euskaraz sortzeko beka. Edozein izan daiteke bekaren eskegile. Epea: maiatzak 30.

• "Monetar eta Finantziar ikasketa-zentruak" (Espainiako Bankuaren Fundazioak) 20 beken deialdia egiten du. Lizentziatuei zuzenduak. Bekak bi urtetako iraupena izango du. Epea: maiatzak 16.

Udalekuak

• Adina: 14-17 urte. Na-

zioarteko elkarraldatzea (Monterosso), udaleku espezializatuak (Akitania, Ciudad Real, Nafarroa, Asturias, Kantabria, Araba) eta hizkuntz egonaldiak (inglesa Seguran). Izena ematen dutenen artean plazak banatzeko, zozketa egingo da. Izenematea: maiatzaren 2an hasi eta 13an amaituko da.

Auzolandegiak

• Izenematea: Espainakoetarako, maiatzaren 2tik aurrera eta Euskal Elkarte

Autonomikoetarako, maiatzaren 9tik aurrera.


Lehiaketak

• VII. Euskal Herriko Erakunde eta Enpresentzako bideo lehiaketa. Kirola, turismoa, enpresa, heziketa... Epea: ekainak 4.

• "Euskadi Literatur Sariak". Gaztelaniaz: "Miguel Unamuno" saiogintza, "Gabriel Celaya" olerkigintza. Euskaraz: "Pedro Axular" saiogintza, "Lizardi" olerkigintza. Epea: ekainak 5.

"...noizbait ordaintzeko neuzkan baloreak (gaztetasuna, denbora, lana, nortasuna) galdu egin ditut eta, ondorioz, egun insolbentea naiz."

ISAK DINESEN "BREVE FRA AFRIKA"



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

kutxan



merkeago daukazu

E T X E B I Z I T Z A - K R E D I T U A K

Badakizu: **kutxak** eskaintzen dizu finantzaketarik onena. Eta orain, gainera, nahi al duzu, etxebizitzari dagokionez, **kutxak** zure alde egin dezakeen guztiaz hitz egin dezagun?

Nahi duzun etxea bilatzen eta aukeratzen laguntzen dizu. Erosteke eman behar dituzun urrats guztien gainean aholkatzen zaitu. Gehien komeni zaizun finantzaketa ikertzen du zurekin batera. Eskubidea duzun onura fiskalen berri ematen dizu. Baita behar dituzun aseguruena ere... Dena, zure oraingo hipotekari dagokiona ere barne, **Kutxa Etxebizitza-Zerbitzuan**.

Zatoz **kutxako** edozein bulegotara eta berehalaxe jabetuko zara. Orain, etxebizitzarekin zerikusia duen guztia, **kutxan** merkeago daukazu-eta.

etxebizitza



zerbitzua

Informa zaitez zeure sukurtsalean edo dei egiguzu

900 40 50 60-ra

DEIA DOHA INIK



... kutxa ...

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

ZURE AMETSA...



Guk pentsatu...



Guk egin...



Zuk gozatu

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE

FAGOR